

EKAINAREN 1ean ITZULTZEKO ARGIBIDEAK

BATX. 2: 2020/06/ 01 ----- **BATX. 1: 2020/06/02** ----- **DBH 4.: 2020/06/03**

- BATXI2ko ikasle guztiak izango dute ekainaren 1ean ikasgelara itzultzeko eskubidea.
- Arreta telematikoa mantenduko da.
- BATXI1eko eta DBH4ko ikasleen kasuan ikastetxeak ondorengo gomendioak ematen ditu:
 1. Ikasgelara ohiko azterketetan ikasgaiaren bat gainditzeko lana egin behar duten ikasleak soilik itzultzea.
 2. Gainerako ikasleek, dena gaindituta dutenek, alegia, etxetik telelana egiten jarraitzea.
 3. Dena gaindituta duten ikasleen artean, norbaitek ikastetxera itzuli nahiko balu, etortzeko eskubidea izango luke. Etortzeko asmoa edukiz gero, deitu ikastetxera edo administrarritza@oriarte.eus korreora guk jakiteko.

Itzulerako antolamendua:

1. Aurrera eramango dugun protokoloaren helburua da aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera garatzea, pertsonen segurtasun eta osasun-baldintzak bermatuz.
2. Birusaren eraginpean egonak izan litezkeen ikasleek COVID19a hedatzeko aukera prebenitzea eta saihestea da gure xedea.

Ikastetxeak Eusko Jaurlaritzak *ikastetxeen erabilera arautzeko* maiatzaren 15ean bidalitako zehaztapenak beteko ditu:

3. Arau nagusi gisa beti mantendu behar da 2 metroko segurtasun-distantzia. Gizarte-urruntzea sustatzeko ikasgela bakoitzean egongo den ikasle kopurua gehienez 15ekoa izango da areto nagusia izan ezik. Ikasgeletan ikasleen artean 1,5 metroko distantzia egongo da. Distantzia hori bermatzeko mahaiak ezingo dira mugitu.
4. Gomendagarria da ikastetxean dagoen bitartean ikasle bakoitzak beti mahai bera erabiltzea. Ikastetxeak ahal duen neurrian ikasle bakoitzari mahai bera esleituko dio.
5. Ikasle bakoitzak bere materiala eraman beharko du. Eskola materiala eta baita ur botila, mukizapiak...Zerbait partekatu beharko balitz aldeztatik desinfektatu beharko litzateke. Ikasleren batek mahaiak aldatu beharko balu garbia utzi beharko luke. Horretarako geletan egongo den soluzio desinfektatzailea eta papera erabiliko du. Erabilitako papera zakarrontzira botako da.
6. Ikasleek maskarak erabili beharko dituzte ikastetxeko instalazioetan: nor bere maskara ekarri beharko du, baina ikastetxeak maskara bat bermatuko die hainbat arrazoiengatik maskararik ez duten ikasleei.
7. Ikastetxetik mugitzeko lur eta paretetako seinaleak errespetatu beharko dira.
8. Aireztapen egokia mantentzeko ateak eta leihoak irekita egongo dira.
9. Komunitatean banaka sartu behar da. Sartu/irtenak koordinatzeko seinaleak erabiliko dira. Klase orduetan ezin da komunera joan (une horretan, desinfektatu eta garbitu egingo dira).
10. Jakinarazi nahi dugu instalazioak maiz garbitu eta desinfektatuko direla: ateen heldulekuak, aulkiak, zoruak, leihoak, etab.

11. Hauek dira antolaketarako erabiliko ditugun jarraibide orokorrak:
 - Eskola-jardunaldiaren hasiera eta amaiera mailakatua izango da.
 - Sarrera patioko lehen atetik egingo da, hots, batxilergoetara doan patioko atetik. Irteera, berriz, patiora ematen duen beste atetik.
 - Pasabideetan eta komunerako bidean 2 metroko distantzia gorde beharko dira. Norabide bakarreko pasabideak antolatuko ditugu.
 - Ordutegia trinkoa izango da, bost ordu emango dira ikastetxean.
 - Jolastokiko denbora mailakatua izango da. Ikastetxean taldeak egitea saihestu behar da eta ezingo da taldeko edo kontaktuko jolasik egin.
 - Urruntze eta higiene neurriak betetzen ez dituzten ekitaldiak ezin dira egin.
12. Azterketetan beharrezkoa den 1,5 metroko distantzia gorde ahal izateko ondorengo neurriak hartuko ditugu:
 - Ikasleak azterketa-geletara modu ordenatuan sartuko dira, pilaketak saihestu behar dituzte eta sartzeko ilaran gutxienez 2 metroko distantzia gordeko dute.
 - Ikasleak sartzeko, azterketak ahoz behera egongo dira jarrita eta ezingo zaie buelta eman azterketariak (irakasleak) hala esaten duen arte. Bukatzen dutenean, azterketak berriz ere ahoz behera utzi eta gelatik atera beharko dute. Pasabideetan ezingo diozue elkarri itxaron, gogoratu pilaketak ekidin behar ditugula.
13. Ikasleek higiene pertsonaleko neurri zorrotzak hartu beharko dituzte:
 - COVID19arekin bateragarriak diren sintoma argiak dituzten ikasleek ezin dute ikastetxera etorri. Komeni da etorri aurretik tenperatura hartzea. Familiak 900203050 telefono zenbakira deitu beharko du egoera baloratzeko. Laborategiko emaitzak lortu arte, isolatuta mantenduko da pertsona, kasu baieztatu baten kontrol-neurriei jarraituz.
 - Eskuak maiz garbitu beharko dira urarekin eta xaboiarekin edo soluzio hidroalkoholikoarekin. Horretarako, ikasgeletan eta ikastetxearen sarrera gel hidroalkoholikoa duten gailuak izango dira.
 - Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea saihestu behar dugu.
 - Erabili eta botatzeko paperezko zapiak erabili behar ditugu.
 - Eztul edo doministiku egiteko garaian honela jokatu behar dugu: ahoa ukalondoarekin estali edo paperezko zapi bat erabili; ondoren bota berehala zapia paperontzira.

Badakigu arau mordera direla baina espero dugu denborarekin eramangarriak izatea.

Mila esker aldez aurretik.

EKAINEN EGUTEGIA
BATX. 1 / DBH 4.ko AZKEN KLASE EGUNA: ekainak 16 OHIKO AZTERKETAK: ekainak 17, 18, 19. OHIKO NOTAK: ekainaren 22an arratsaldeko 16:00etatik aurrera Einikan ikusgai egongo dira. BATX.2ko AZKEN KLASE EGUNA: ekainak 23 EZOHIKO AZTERKETAK: ekainak 24,25,26. EZOHIKO NOTAK: ekainaren 30ean egongo dira Einikan ikusgai.

